

# Leenengo abeltzainen eta nekazarien aldia

## BERMEO

Janari ekoizleen leenengo alkarteak artzen dauz berarengan, Erdi Neolitikotik Brontze Aroaren erdira artekoak (orain dala 6000 eta 3200 urte bitartekoak). Bermeoko udal-barrutian garai aretako zerupeko ainbat ezarkunde eta trikuharri dagoz, baina batek berak be ez dauka testu inguru estratigrafikorik, goldatu egin diralako edo baso-barritzeak dirala eta bideak zabaldu diralako (Lopez Quintana eta Bazeta, 2001). Alanda be, zerupeko jardueren sare trinkoak damoskun informazio geografikoak, eta testuinguru estratigrafikoa daukien Urdaibaiko beste aztarnategi batzuekatz konparatzeak, leenengo abeltzain eta nekazarien bizimoduaren ganeko gogoeta garrantzitsu batzuk egiten laguntzen deuskue.

Azkenengo eiztari-batzaileen ustiatzeko estrategia Erdi Neolitiko inguruan amaitu zan, eta desorekea sortu zan gorantza joan zan biztanle kopuruaren eta baliabide erabilgarrien artean, azken orreek, ustiatzeko sistema intentsiboaren eraginez, gero eta gitxiago ziralako. Arazo orreri aurre egiteko, giza taldeek astiro-astiro, ezelango "iraultzarik", ez bat-bateko aldaketarik eragin barik, nekazaritzako eta abeltzaintzako leenengo saiakerak egiten aalegindu ziran, au da, ain urrunekoak be ez ziran beste eremu batzuetan; esate baterako, Ebroren ibarrean, egiten ebezan praktika ezagunak eta garatuak. Olan, populatze ziklo orren ezaugarriak ekoizpen ekonomia asi barria eta nekazari eta abeltzain gizarteek berezkoa daukien eremuaren erabilera geitzea izan ziran. Urdaibaiko arroan orain dala gitxi industutako aztarnategi bat daukagu, Kobaederra (Kortezubi), aro zuzen be. Koba orretako estratigrafiak ziklo oso-osoak artzen dau, Neolitikotik Brontze Aroa (Arias eta beste 1999: 551-552). Koba orretako beerengo mailea orain dala  $5630 \pm 100$  urtekoa da eta etxeko animalien aztarnak (beiak eta ardi-ahuntzak) eta landatutako zerealenak (garagarra eta garia) topau dira bertan. Zereal orreen azi bat oinarri artuta orain dala  $5375 \pm 90$  urteko datea lortu da.

Populatze ziklo orretako esangura andiko lorratz bat megalitismoa da. Sollube mendikatean monumentu BERMEO - Itsasotik mendi barrenera Bermeoren astapenak: kulturearen eta ingurunearen bilakaerea Historiaurrean-arkitekturako leenengo aleak eregiten asi ziran: trikuarriak. Trikuarrien funtzionaltasuna ilobia (eorzteko lekua) eta erritua baino aragokoa da. Ori dala-eta, oso leku nabarmenetan egoten dira, urrunetik ikusteko moduko lekuetan, ildakoen alkarte baten sinbolo legez eta, seguruenik, bizirik dagozanek kontrolaturiko lurraldearen adierazle legez. Zerupeko abitataren eta megalitikoko arkitekturearen arteko banaketek ustiakuntza lurraldeen murrizketa prozesuaren nabarmentasuna islatzen dau, eremu berean dagozalako batzuk zein

besteak. Sollube mendiaren mendikate nagusian eta bigarren mailako mendi-inguruetan dagozan trikuarriek lurraldea egoki antolatuta egoala erakusten dabe, bearbada, ornidura leku askotan banatuta ordurako. Teknologiarri jagokonez, garai aretan aurrerakuntza teknologiko andiak egin ziran: zeramikea, arlandua, osto itxurako eta akabera leuneko lantza-puntak eta, apur bat geroago, metalezko leenengo objektuak, aizkorak batez be.

## Udalerriko paisajearen bilakaerea, Erdi Arotik Aro Garaikidera arte

Bermeoren Historiak, gaur egunean Bizkaia osotzen daben beste udalerrri batzutako historiek legez, utsune nabarmena dauka agirietan, Antxinarotik Erdi Arora artekoa, ain zuzen be. Lorratz danek gaur egungo Bermeon erri erromatar bat egon zala adierazoten dabe, baina daukaguzan datuak ez dira naikoa lurraldeko paisajearen bilakaerea zein izan dan jakiteko. Alanda be, Bermeoko paisajearen gizakiak zein eraldaketa eragin dauen ezin daiteke jakin oraindino eta etorkizunean, bearbada, zientzialariek argitu aal izango dabe.

## Erdi Aroa (VII-XV)

Erdi Arora arteko (VII-X. gizaldiak) dokumentazinoa oso urria da gaur egunean; arkeologiak baino ez deusku emoten iluntasun utsean daukagun garai areri buruzko argitasun apur bat. Alanda be, garai aretako nekazaritzeak, bear beste garatuta ez egoan arren, oinarriizko ekoizpen egitura bat baeukala uste da, ekoizpen unidadeakaz lotuta egozan erriguneen bidez, ain zuzen be. Ekoizpen unidade orreetako batzuk, etxe inguruetakook, arloetan azpibanatu ebezan mailakaketen bidez, lurraren erosinoa eragozteko eta, bearbada, erein aldaketak errezteko.

Nekazaritzearen zabalkundeak inoz be ez eban lortu buru ornikuntzarik udalerrian, batez be oinarriizko produktuetan eta zerealetan: garia eta zekalea, besteak beste. Alanda be, nekazaritza jardueria anditu arren, au da, Artika, San Andres, San Migel eta Maliu ibar barrenetara zabaldu arren, antza danez, ez zan ekoizten biztanle kopuru andia eta sakabanatua ornitzeko beste.

Erritarrak ornitzeko bearrian orrek istiluak eragin ebezan nekazarien eta abeltzainen artean, izan be, nekazaritzako bultzakadearen aurrean euren lurrak murriztu eutsiezan abeltzainei. Abeltzaintzearen garapenak eta basoko baliabideen ustiakuntza intentsiboak tupust egiten eban lurrak gorritzen asibarria zan nekazaritzeagaz eta lugorri aldi luzeakaz. Gizaldien joanean nekazaritzeak ibar barreneko lurrak be artu ebezan eta, ondorioz,

gizakiak lur eremu andiagoak okupau ebazan. Aldaketa orren eraginez bizilagunek itsasotik eta ibarretako leun guneetatik urrago egozan bizilekuetarantz egin eben, zerealaren landaketeari etekin andiagoa atarateko. XI. gizalditik aurrera, baserria eta soloak alkarrengandik urrago egozanez, biztanleria geldikorragoa egin zan eta nekazaritzeari gogorrago ekin eutson.

Garia, garagarra eta zekaleagaz batera, fruta-arbolak be ugaritu egin ziran, batez be zitrikoak, kostaldeko klimearen epeltasunari esker, zitrikoak ondo azten diralako udalerrian. Laranja eta limoiak, batez be, eskabetxeak egiteko eta arraina kontserbatzeko erabilten ziran. Inguruko udalerrietan legez sagarrondoak eta gaztainondoak be oso garrantzitsuak izan ziran, erdi aroko nekazarien elikadura oinarrietako bat izan diralako orreek gaur egunera arte.

Fruta-arbola labore orreetako batzuk kendu eta maastiak ipini ebezan eta, gizaldiek aurrera egin aala, oso ugariak biurtu ziran paisajeen. Ori zala-eta, bertoko ardaua amarrenerako produktu biurtu zan, eta ori salbuespena izan zan Jaurerriko eremuetan. Maats ondoen ganeko protekzionismoaren eraginez, burges ekoizleek monopolizau egin eben maasgintzea, ainbestearino ze erriko ardao danak edan arte galarazo egiten eben kanpoko ardaurik saltzerik.

Bermeoko jarduera ekonomikoen artean, zalantza barik, arrantzeak izan dau garrantzirik andiena. Arrantzearen garrantzia ez da arrantzalekuetako bolumenagaitik bakarrik, ezpada itsas-orizonteraino zabaltzen zan udalerrri biurtu eben tradizino, baliabide eta aurkikuntzakaitik. Izan be, itsas-orizonte ori ez zan egundo be amaitzen Bermeoko ontziteriarentzat. Marinelen kofradiako antxinako testuetan eta dokumentazioan agertzen dan legez -estatutuak 1353 urtekoak dira-, arrantza bermeotarrek egozan lekuraino jarraitzen eutsien arrain-sardei. Besteak beste, bisiguak, sardinak eta sardinzarrak arrantzatzen ebezan. Espezie orreek, azkenengo biak batez be, Bermeotik oso urrun arrantzatzen ebezan; alanda be, XIV. gizaldian bermeotarrak Iparraldeko Itsasoraino eta Galiziako eta Asturiaseko kostaldeetara be eldu ziran.

Aparteko atala merezi dau balearen arrantzeak, Bermeo protagonista garrantzitsua izan zalako orretan, Bizkaiko arrantza eremuan. Balearen arrantzea udagoiengan asten zan eta negu amaierara arte irauten eban; au da, sardako baleak edo euskal baleak (*Eubalaena glacialis*) migrazinoan joazanean. Baleak uriko ateetaraino eltzen ziran eta talaiariek abisua jotzen ebenean erritar danak jartzen ziran abian. Sarda balea urritzen asi zanean Bermeoko ontziteriak ain errentagarriak ez ziran beste balea batzuk arrantzatu bear izan ebazan, esate baterako, xibartak eta kaxaloteak. Gaur egunean 300-400 sarda

bale baino ez dagoz ipar emisferioan.

*Irakurlea: Elena Amezua, Bermeo*